

NERE ETXEAN HIRU SORGIN

Iratzeder

ANTZESLEAK

Sorginak:

ANDERE BARE: alferkeria
ANDERE BILBIL: zikoizkeria
ANDERE BAIBAI: harrokeria

Neskatoak:

MARI PASTIZ: Andere Barerena. Ximun Ximisten emaztegaia.
AÑA LAZO: Andere Barerena
KATTI BEKAITZ: Andere Bilbilena
GAXUX BIPER: Andere Baibairena. Manez Pindaren emaztegaia.

Mutilak:

MATTIN BIHOTZANDI: amodio
EÑAUT UKOZALU: aiherkunde
MIZEL BEGIGOSE: gutizia
GANIX MUTURREKO: herra
MANEZ PINDAR: bozkario
ANTON NIGARZORTA: ilundura
PATTIN OLDAR: ausartzia
PELLO DALDAL: beldurra
OIHER AINTZIN: esperantza
TALET GIBEL: etsimundu
XIMUN XIMIST: hasarrea

Bortz haizeak:

1. *Mundua*

KATALIN KURLINKA
 KALIXTRO KUTZERO
 MAYI PINPIRIN: horien alaba
 AÑA EZAXOL: horien alaba
 MARI XINKULIN: amatxi

2. GALTLAGORRI (*mintzatuko da, ez agertuko*)

3. JOMIEL: aingerua (*ez agertuko ere*)

4. JAINKOA: denen jabea

5. BARNEKO HAIZEA: ongirat ala gaizkirat sustatzaile.

Etxeko jauna:

KAXKOPEL: nahikundea.

Etxeko anderea:

ZENTZULUZ: adimendua.

Zazpi haurrak:

SOBAT eta SOBI
 XELET eta MANTXUT
 MILIK eta KALAK
 MUÑU

	JAINKOA amodio da	
KAXKOPEL nahikundea		ZENTZULUZ adimendua
ANDERE BARE atsegin gose alferkeria	ANDERE BILBIL ontasun egarri zikoizkeria	ANDERE BAIBAI handi nahia urguilua
MARI PASTIZ gormandiza	KATTI BEKAITZ bekaizkeria	GAXUX BIPER kolera
		AÑA LAZO lizunkeria

I

*Kaxkopel, Zentzuluz; Pinpirin eta Ezaxol ohorezko bi andereñoekin.
NI-tarren jauregian, 17-garren mendeko gisan.*

KAXKOPEL (*su ondoan kantuz:*)

Nere e-txe-an hi-ru sorgin
frango bai nu-ke ba - te - kin
ni-hundik e-re nik ez jakin
heien ken-tze-ko zer e - gin

ANDERE BARE (*eskaleretarik ixilka jausten eta joaten*)

Ande-re Ba- re bi-lo-a go-rri
na-hi be - zenbat i- rri zu - ri
haren e - le -ri fida de - na - ri
gaitzi-tu - rri

Nere etxean ...

ANDERE BILBIL (*ere iragaiten*)

An-de-re Bil-bil az-tapar zorrotz
Ai sos be - zen bat balu bi- hotz
zango-ak ma -kur eta be - gi motz
tzar e-ta hotz

Nere etxean ...

ANDERE BAIBAI (*jausten-ere eta joaten*)

An-de-re Bai-bai de-na es -pan-tu
de-na pe -ten-ta dena kan- tu
ez nahi ba-duk hau hasa - rre - tu
egin kon- tu

Nere etxean ...

ZENTZULUZ: Kaxkoppel, oi! egundaino! Kaxkoppel igor-zkitzu hortik.

KAXKOPEL: Zer? nor?

ZENTZULUZ: Hiru sorginak.

(*Hiruak Zentzuluz-i desafioka:*)

KAXKOPEL: Zer? izeba xaharrak?

ANDERE BARE: Bai, etxeakoak gare, gero.

ANDERE BILBIL: Hemen sortuak.

ZENTZULUZ: Etxearen errekarazle alainak!

ANDERE BAIBAI: Behazue horren kopeta.

ZENTZULUZ: Mana hortik, gizona.

KAXKOPEL: Oi, emaztea, utz nezazu bakean.

ZENTZULUZ: Zer? Ez ditutzu igorri nahi?

KAXKOPEL: Ba, ba, ba.

ANDERE BARE (*Zentzuluz-i*): Ilobaño xarmanta.

ANDERE BILBIL: Jasan beharko gaitun ba.

ANDERE BAIBAI: Guri nausituko dena ez da sortua.

ZENTZULUZ (*Kaxkoppel-i*): Zer! zure lagunaz ez duzu axola gehiagorik?

KAXKOPEL: Ai, ai, ai! Kalma, emazte. Kalma, nere bihotzeko azukre koxkorra,
nere maite...

ZENTZULUZ: Maite banauzu, igor sorgin ez-bertze horiek.

ANDERE BARE: Maitagarri hutsa zare, bai.

ANDERE BILBIL: Mokofin ez-bertzea.

ZENTZULUZ (*Kaxkoppel-i*): hek ala ni.

ANDERE BAIBAI: Ikusteuzue?!

ZENTZULUZ (*Kaxkoppel-i*): Aitu?

KAXKOPEL (*banoki*): Zoazte.

ANDERE BILBIL: Mendekatuko gaitun!

ANDERE BARE: Izeba xaharrak hola igor!..

KAXKOPEL (*finkiago*): Zoazte, zoazte.

ANDERE BAIBAI (*Zentzuluz-i*): Mari mukitzu.

Hiruek (irri karkailaz). Ai, ei! Ii, ui, ui...

KAXKOPEL (*su ondorat itzuliz*): Ai Pinpirin, Pinpirin, Zer borroka-bizia!

ZENTZULUZ: Bai eta ni beldur: borrokatu nahi ez duena galduko da.

MAYI PINPIRIN: Xo! xo! (*Kaxkoppel jar-araziz*)

AÑA EZAXOL (*Kaxkoppel lokar-araziz*): Odol gaixtoak ez du deus onik egiten.

KAXKOPEL: Egia! Bainan, futxo, zertako utzi dauzkigu Nausi zaharrak hiru atxo horiek etxean?

ZENTZULUZ: Zertako? Ez lo egoteko.

KAXKOPEL: Xo, xo, Zentzuluz ene maitea. Badakizu maite zaitudala. Elgarren beharra badugu biek.

ZENTZULUZ: Bai, Kaxkoppel enea, elgarrekin gaudeno, ez dugu deusen beldurrik; bainan aldakorra zare, aldakorra.

KAXKOPEL: Eta zu idorra;

ZENTZULUZ: Bai, noren falta? Ez nindake hain idorra, hiru sorgin horiek kanpoan atxikitzen bazinitu eta etxeko hameka mutilak nere zerbitzuko...

KAXKOPEL: Hameka mutilak... Ai hek ere... (*deika:*) So-bat, So-bi. Fite: ea nun den Mattin Bihotzhandi. (*bi haurrak badoatzi lasterka*) Ai, bizia!

SOBAL: Hantxet da, aita, andere Bare-rekin eleketa.

SOBI: Ba eta Ganix Muturreko ere.

ZENTZULUZ: A! bada zerbeit!

KAXKOPEL: Ep! Mattin. Ep! Ganix.

Biek: Jauna, hemen gaitutzu nausiaren mutil.

KAXKOPEL: Bai, mutil alferrak.

MATTIN: Jauna, erraguzu zer egin eta eginen dugu, zer maita eta hemen gaitutzu...

Biek: Nausiaren mutil.

KAXKOPEL: Bixtatik! (*Xelet-i*) Ea, Xelet, hail ondotik: ea zer dioten. (*Jarriz*) Ai, bizia! Zer bizia!

XELET: Nausia gizonago balitz, hek mutil funtsezkoagoak litezkela.

KAXKOPEL: Bai, gizona izaitea, ez baita lan ttipia. (*Pinpirin-i*) Jo zan, jo musika.

ZENTZULUZ (*errotua*): Oi zer gizona! Burutik minez nago. Banoa etzaterat.

KAXKOPEL (*lehen bezala kantuz*): Nere etxean...

ANDERE BARE (*lehen bezala kantuz*): Andere Bare...

ANDERE BILBIL (*lehen bezala kantuz*): Andere Bilbil...

ANDERE BAIBAI (*lehen bezala kantuz*): Andere Baibai...

II

(*Kanpotik*) Hela!

MANTXUT: Norbeit.

XELET: Bai norbeit bada, jauregiaren atean.

SOBAT (*xutiturik*): Mundutegitarrak.

MAYI PINPIRIN: Zer? aitamak?

AÑA EZAXOL: Ba ote?

MAYI PINPIRIN: Oi, oi, aita!

AÑA EZAXOL: Ama, ui! eta amatxi ere.

KAXKOPEL: Sar-araz-kitzue.

ZENTZULUZ: Ongi-etorri, jaun Kalixtro Kutzero eta andere Katalin Kurlinka.

KATALIN KURLINKA: Aspaldi etorri nahiak ginen.

ZENTZULUZ: Amatxi Xinkulin ere. Zer kuraia!

MARI XINKULIN: Bai, gaixoa. Hainbertze eta hainbertze erran zautaten NItarren jauregiar, nun atsolutuki abiatu nahi izan baitut.

KALIXTRO KUTZERO: Zertan dire gure alabattoak? Ez zaituzte hasarrarazten batzuetan?

KAXKOPEL: Ez, ez segurki. Zarmanta hutsak dire.

ZENTZULUZ: Jar zaitze, otoi! (*deika*) Mattin! Ganix! Eñaut! (*Xinkulin-i*) Ai, mutil horiek!

MARI XINKULIN: Zuk errazu!

ZENTZULUZ: Norat goatzi, mutil iñutil horiekin?

MARI XINKULIN: Errazu berriz!

ZENTZULUZ: Ez da gehiago bizitzerik!

MARI XINKULIN: Ai! gure denboran bederen...

KALIXTRO KUTZERO: Aski, aski, amatxi! Sor-egunean eman zautzun inposilez Jainko Jaunak xirribika bat tripan.

KATALIN KURLINKA: Alo! gizona. Haren adinean izanen duzu bai zuk ere zerbeit arrangura. Ez duzu ikusten xaharreri guziak hiltzen zaizkotela, guziak...

KUTZERO: Oi emaztekoa, zer kalaka.

ZENTZULUZ: Ez zaitetzela bederen, hunat etorri-ta, jaun andereak kalapitan has.

KALIXTRO KUTZERO: Ez, ez. Ez dute gure kalapitek funts handirik.

KATALIN KURLINKA: Zer nahi duzu, andere Zentzuluz, oihalaren josteko, sistatu behar den bezalatsu, senar-emazteen amodioaren josteko behar da ere zenbeit sistako, piko, ximiko.

KALIXTRO KUTZERO: Ele gutixoño, emaztekoa.

(*Ordukotz, denak jarriak dire*)

KAXKOPEL: Zer diozue, beraz.

MARI XINKULIN: Zer nautzue diogun, mende trixte huntan?

KALIXTRO KUTZERO: Trixte, trixte... Zer diogun? guziak ongi doatzila; eta, orai bederen, bizi ditakela.

GALTXAGORRI (*kantu apal bat*)

Ba - duk zer jan zer e-dan
 ba - duk - zer go - za
 e-gun du - kan go -zo-an
 pu-lun-pa - bi-ho - tza
 Ba - duk zer jan zer e-dan
 ba duk - zer go - za

KAXKOPEL: Hau, hau ateraldia! Ai andere Bare nere izebak gustukoa lukela!

ANDERE BARE (*Heldu da tarrapatan eskaleretarik, bi neskatokak ondotik*)

Huna, huna, hemen nauzu. (*deneri*): Zauzte jarririk, zauzte; jar-leku hori askiko zait. (*jartzen da banoki, jar-leku eder batean*) Mari Pastiz eta Aña Lazo jarriko zaizkit ondoan. (*jartzen dire lurrean*)

ZENTZULUZ (*sutan*): Hauxe andere Bare-ren kopeta! Nor da etxe huntan etxe-kandere? (*denak harrituak*)

KAXKOPEL: Ez has hola, kanpotar ohoragarri horien aintzinean.

ANDERE BARE (*banoki*): Ederki hori, Kaxkoppel. Ai, hemen baginu andere Bai-bai...

ZENTZULUZ: Dagola nahasi hura, den tokian.

ANDERE BAIBAI (*neskatoarekin ageri*): Deitu nauzue? Heldu naiz, heldu gira Gaxux Biper eta biak.

ZENTZULUZ: Nihork ez zaitu deitu.

ANDERE BAIBAI: Nihork ez deitu? Ixil-araz zak, Kaxkoppel, hire emazte min-korra. Zer? emazteak senarrari manatu behar... Urguilurik ez duen gizona ez da gizona.

ANDERE BILBIL: Zer ditutzue kalapita hoik? Zertako daude gaur hemen hainbertze jende bildurik.

ZENTZULUZ: Egundaino! Zuk zer duzu hortan ikustekorik?

KATTI BEKAITZ: Ez hola mintza nere andreari.

ANDERE BARE, ANDERE BAIBAI: Hori, hori, Katti Bekaitz.

KAXKOPEL: Andereak, otoi!

ZENTZULUZ: Erakuts etxeko nausia zarela.

- KAXKOPEL: Emaztekoa, ez izan hoin zaintsu.
- ANDERE BAIBAI: Bai, horixe: izan etxeko nausi; eta eman hire izeberi zor zaioten ohorea.
- KALIXTO KUTZERO: Bainan, bainan nun gaude hemen?
- MARI XINKULIN: Zertaratua den, haatik, jendea!
- ZENTZULUZ: Hameka mutil izaki etxean, eta... bake gehiago ezin goza!
- ANDERE BAIBAI: Mutilek bai, zuk baino zentzu gehiago dute. (*Oihuka*)
Eñaut, Ganix, Ximun! (*agertzen dire*) Hauk mutilak: Eñaut Ukozalu deneri aihar, Ganix Muturreko herra bezein gorri, Ximun Ximixt ihurzuria bezein hasarrekor.
- ZENTZULUZ: Kaxkopol, hola uzten ditutzu zure mutilak bertzen zerbitzari?
- KAXKOPEL: Zer egin? Zer egin? Ep Mattin, ep Manez, ep Oiher! Hiru hoik bederen onak ditugu: Mattin amodioa bezein bihotz handi, Manez bozkarioa bezein beti pindar, Oiher esperantza bezala beti aintzinat ari. (*Hiruak heldu dire lasterka*)
- ANDERE BARE: Anton, nun haiz Anton Nigarzorta? Nun haiz Pello Daldal eta hi Talet Gibel etsimendua bezein unkiarri? (*Hiruak herrestan heldu*)
- KATALIN KURLINKA: Zer da etxe hau!
- ZENTZULUZ: Ahalgetua naiz...
- ANDERE BILBIL: Nik ere baditut nere mutilak. Mizel, ep Mizel Begigose; eta hi Pattin, Pattin Oldar!
(*Denak ari dire oihu kalapitan. Xoko batean, haatik, Ximun Ximixt Mari Lukaink-ekin ezkongai solasetan; eta, bertze xoko batean, Manez Pindar Gaxuxa Biper-rekin. Azkenean, Zentzuluz eta Kaxkopol solasean hasten dire. Bi kadiren gainean xutik emaiten dire; eta denak ixil-arazten dituzte*)

III

Kaxkopol. Zentzuluz, Mattin Bihotzhandi.

- KAXKOPEL: Mattin Bihotzhandi, nahi ginuke zurekin funski mintzatu. Hola ariz errekarat goatzi; etxean ditugun indar guzietz elgar ausikiko dugu eta errautsiko.
- ZENTZULUZ: Berant bada berant, ohartzen hasia zare.
- KAXKOPEL: Bai atzo gertatuak inarrosi nau eta atzar-arazi. Zu, Mattin, nere aita zenaren mutil bihotz handikoa, erraguzu garbiki zer zaitzun.
- MATTIN BIHOTZANDI: Lehen lehenik biek bat behar duzue izan; eta, bat izaiteko, bihotz handiagor behar duzue elgar maitatu. Barka, jauna, bainan sortzen ikusi zaitut eta maite dutan haur bati bezala mintzo nitzaitzu: gizona zare, bainan nahikundea ahulsko duzu; andreak aldiz gogoia xorrotxegi batzuetan. Baten nahikundea azkartzeko eta bertzearen gogoia goxatzeko, behar zinukete maitasun handiagor bizi.

- KAXKOPEL: Zuhurtziaz beteko aitaxi bat bezala mintzo zare. Jo aintzinat!
- MATTIN BIHOTZANDI: Elgar maitatzeak indar gehiago emanen dautzue, deneri etxean nausitzeko.
- ZENTZULUZ: Hiru izeba sorgin hoik behar ditugu etxetik urrun igorri.
- MATTIN BIHOTZANDI: Ez dut uste.
- ZENTZULUZ: Badut aski jasanik. Ez ditut gehiago ikusi nahi ere.
- KAXKOPEL: Kalma, kalma. Entzun Mattin-en erran zuhurak.
- MATTIN BIHOTZANDI: Ez ditezke etxetik igor; etxeokak dire hek ere.
- ZENTZULUZ: Zer egin beraz? Gakoz eman?
- MATTIN BIHOTZANDI: Ez. Hek ere maitatu.
- ZENTZULUZ: Maitatu?
- KAXKOPEL: Ainixko da hori...
- MATTIN BIHOTZANDI: Maitatzeak bihotzak aldatzen ditu, bihotz gogorrenak eztitzen.
- ZENTZULUZ: Hiru atxo hoik hemen direno, ez da bakerik izanen etxe huntan. Heiek dituzte mutilak eta neskatoak nahasten eta elgarri jazar-arazten.
- MATTIN BIHOTZANDI: Bai hori da. Izebak aldatzen eta baketzen badire, mutil eta neskatoak bide xuxenean sartuko dire.
- ZENTZULUZ: Zer egin ba?
- MATTIN BIHOTZANDI: Orai arte hiru izebak hastiatu ez ditutzuenean, jasan dituzue eta ez sekulan maitatu.
- ZENTZULUZ: Diren bezalakoak ikusiz, ez da harritzekorik. Bainan, Mattin...
- KAXKOPEL: Ixil, emaztekoa, ixil. Entzun zazu.
- MATTIN BIHOTZANDI: Diren bezalakoak direno, ezin maitatuak dire; bainan hasten bazare heien maitatzen eta maite ditutzula heieri erakusten, bihotz barnean duten on hura loratuko zaiote.
- ZENTZULUZ: Ba ote dute horiek bihotzean onik?
- MATTIN BIHOTZANDI: Bai denek badute, ez iduririk ere, zerbeit onik; eta, ez balute, behar zaiote eman, gure amodioaz erein.
- KAXKOPEL: Ederki mintzo zare, Mattin; bainan, zure ustez, zer egin behar ginuke orai?
- MATTIN BIHOTZANDI: Lehenik hiru izebak, mutilik eta neskatorik gabe, mintzatu; gero mutil eta neskatoak bildu.
- KAXKOPEL (*Mattin-i*): jauts-arazkitzu, beraz.
- ZENTZULUZ: Jadanik?
- KAXKOPEL: Bai, elgarrekin aski indar izanen dugu heien mintzatzeko. Ez bagare hortaratzen, akabo etxea eta gure haurrentzat zer kaltea!
- ZENTZULUZ: Nahi duzun bezala.
(*Mattin badoa, hiru izeben bila*)
- KAXKOPEL: Aitortu behar dugu: ez zela holakorik gertatuko, beti bihotzez bat egon bagine.
- ZENTZULUZ: Gure bihotzak ez dire, dakitanaz, sekulan elgarretarik berezi.
- KAXKOPEL: Ez; bainan ez zuten behar bezenbat amodio. Ez zituen nahikun-dea eta gogoia amodioak aski azkartzen, aski argitzen.

JOMIEL *aingerua kantuz:*

Ka-la-pi-tak u - tzi e - ta
 elgar mai ta el - gar mai - ta
 zo-ri - o - na hor - tan bai-ta
 elgar mai-ta el - gar - mai-ta

ZENTZULUZ: Hobe dugu istan bat urruntzea.

KAXKOPEL: Bai, ongi jarriak izanen direnean, etorriko gitzaiote agurka.

(*Hiru atxoak, Mattin-ekin jausten*)

ANDERE BAIBAI: Harritzen naiz bai, harritzen naiz.

ANDERE BILBIL: Gauza horrek badu bertze buztanik.

ANDERE BARE: Harrigarri ez ote da ba, atzo gertatu denarekin?

MATTIN BIHOTZANDI (*jar-alki ederrak aintzinatuz*): Jar zaizte, otoi! Jar zaizte, andereak. (*Eta badoa*)

ANDERE BARE: Hau jar-alki gozoaren gozoa!

ANDERE BILBIL: Alaintso! Nork daki zer balio duketen holako jar-alkiek!

ANDERE BAIBAI: Gu bezalakoentzat, ez dire ederregiak, a! a! a!

(*Andere bakotzak baditu bere gisako ziminokeriak:*

A. Bare aho-zabalka ari da, aize egiteko bat eskuan;

A. Bilbil, dena aztapar, eskuin eta ezker beha bere moltsa miatzen ari da;

A. Baibai dretxo dago, Erregin bat bezala; eta bere bisai zimurtua irinez-tatzen hasten da.)

ANDERE BILBIL (*A. Baibai-ri*): Bai zu beti espantutan: guziak baino gehiago zarela.

ANDERE BAIBAI: Eta zu beti aztaparrekin harrapaka: ea zer bil, zer karraka.

ANDERE BILBIL: Kakaire hiri.

ANDERE BAIBAI (*batsa galdua*): A, a, a! Neri holakoak erran. Andere Bare, aditu duzu?

ANDERE BARE: Zoin kataska-gose zarezten, alainan!

ANDERE BAIBAI: Behar da kataska bizi huntan; bertzenaz nola nausitu etxean?

ANDERE BILBIL: Zu nausi? Ai, hori ez!

ANDERE BAIBAI: Bai, bai: ederki gaitun, hi nausitzen bahaiz, urde zikoitza!

ANDERE BARE: Bakea, bakea, otoi! Ez duzue ikusten ni naizela, nere eztitasunaz, Kaskopel-en nausi.

ANDERE BAIBAI: Hori bai. Badakigu orai zertarat doan zure nausigoa: atzoko gerla, atzoko saltsa!

MATTIN BIHOTZANDI (*Dutea ekartzen diote*): Huna, andereak, etxekandreak
aren partez.

ANDERE BAIBAI: Etxekandrearen partez!

MATTIN BIHOTZANDI: Bai haren partez eta etxeko-jaunaren partez.

ANDERE BILBIL: Ez dute beraz gure alderat herrarik?

(*Zentzuluz eta Kaxkoppel agertzen dire*)

ZENTZULUZ: Agur, ttantta maiteak.

KAXKOPEL: Ez mugi, ez mugi.

ANDERE BARE: Dute onskoa!

ANDERE BILBIL: Barnea goxatzen du!

ANDERE BAIBAI: Hola dut gustukoa: bero-beroa!

KAXKOPEL: Ikusi dugu atzo zertarat doan etxea, ez balin bagaude bakotxa
gure tokian.

ANDERE BARE: Zer erran nahi duzu?

KAXKOPEL: Bai, ttantta, emazteak argitua ibiltzeko orde, zuekin ibili naiz.

ANDERE BILBIL: A, gaixoa! andere Bare-rekin ibiltzen bazare...

ANDERE BAIBAI: Oi! oi! atzoko karmañola!...

ZENTZULUZ: Hau erran behar dut: andere Bare, gure ttantta, ez da andere
gaixtoa.

ANDERE BARE: Dutea baino ere ele goxoagoa!

ZENTZULUZ: Jitez goxoa da, ezta, jendakina.

ANDERE BARE: Hau konplimenduak!

ANDERE BILBIL: Esne-urina iduzkitan bezala, urtuko zaiku gure Bare barea.

ANDERE BARE: Mokofin! hik, segur, bahuke urtzearen beharra.

KAXKOPEL: Ixil, andereak, ixil! Entzun-azue Zentzuluz.

ZENTZULUZ: Bakotxak badugu gure jitea; bainan-bakotxaren jitea gaikiratzen
ahal da ala oneratzen. Nere senarrak, bere onean delarik dionaz, badut
zentzu; bainan zentzua ere behar da oneratu, behar da maitasun-bidean
sar-arazi. Hori faltatu zaitala ohartu naiz, Mattin Bihotzhandi mintzatuz
geroztik. Izan banu zentzu bezenbat amodio, Kaxkoppel nere senarrak na-
hikunde azkarragoa izanen zuen; eta ez zen —barka, otoi!— andere Bare-
ren bidetarat lerratuko.

ANDERE BARE: Zer egin behar dut beraz? Etxe huntarik joan.

KAXKOPEL: Ez, ez.

ZENTZULUZ: Etxekoa zaitugu, ttantta, etxekoa; zure jitea, haatik, sar-araz zuk
ere maitasun bidetan. Emazu etxean goxotasun, eztitasun. Izan zaite,
amatxi bat bezala, gure zazpi haurren bozgarri.

ANDERE BAIBAI: Eta gutaz,

ANDERE BILBIL: Gutaz zer diozu?

ZENTZULUZ: Gauza bera.

ANDERE BAIBAI: Oi, oi!

ANDERE BILBIL: E-e-e, ez ditake.

ZENTZULUZ: Bai zuek ere jitez onak zarezte. Andere Bilbil-ek badaki gauzen
balioa; eta andere Baibai-k jenden balioa. Haatik andere Bilbil-ek, bil bil
egiteko orde, egiten balu eman-eman, zer ttantta paregabea litaken!

ANDERE BAIBAI: Ederki errana.

ZENTZULUZ: Eta zuk, ttantta, zuk, andere Baibai, bazinaki nausi-nahiak baino zerbitzari izaiteak emaiten diola jendeari bere balioa, ttanttarik maiteena zinteke.

ANDERE BAIBAI: Beraz,... ez gaituzte etxetik igorri nahi?

KAXKOPEL: Ez, ez. Hiruak etxeokak zarezte; eta, Zentzu Luze-k erran bezala, maitasun bidean sartzen bazarezte Mattin Bihotzhandi gidari, etxeari zorriona ekarriko diozue.

Ai Ba-re zu za-re (bis)
ez-ti-aren pa-re
Rai rai rai de rai
rai-rai rai-rai rai-de-rai

(Hiruak xutik eta dantzan)

Ai Ba-re! Ai Bil-bil! (bis)
Ai Bai-bai! rai-de-rai

2 - Ai Bilbil, zu ibil
sosa bezein bipil
rai-rai rai-de-rai
rai-rai rai-rai rai-de-rai

3 - Ai Baibai, ez orai
nihor izan etsai
rai-rai rai-de-rai
rai-rai rai-rai rai-de-rai.

(Dantza gelditzean, hiruk emaiten dire, etxeko jaun-andereen giblean).

KAXKOPEL: Mattin Bihotzhandi, ekar-araz-kitzu mutilak.

Kantariek:

Ma-ttin bihotz han- di
 bi -hotz han-di ho - ri
 o - rai i -zan be - di
 de-nen aintzin - da - ri

(Mattinekin heldu da dantzari Eñaut Ukozaluz; eta etxeko jaun-andereri egiten diote agur)

1.

E - ñaut U - ko-za - lu
 i du-ri a - ki - lu

(Bigarren mutila heldu)

Mi - zel Be -gi -go - se
 ne-hoiz e-zin a - se

(Hirugarrena)

Ga - nix Mu-tu-rre - ko
 be - so-ak bi -zix - ko

(Berriz kantariek)

§ — Mattin Bihotzhandi...

2 - Manez Pindar, (pindar)
omore on ekar.

— Anton Nigarzorta,
bihotzak urezta.

— Pattin Oldar, (oldar)
eman bihotz indar.

3 - Pello Daldal, (daldal)
kalipua ez gal.

— Oiher Aintzin, (aintzin)
deneri ots egin.

— Talet Gibel, (gibel)
ez izan hoin goibel.

— Ximun Ximixt, (ximixt)
ibil brast eta brist.

HIRU ANDEREEK: Eta nun ditugu neskatoak?

ANDERE BARE (*kantuz*):

Mari Pas-tiz - A-ña La - zo
orai be-ha - zoin den go - zo
Mari Pas -tiz - A-ña La - zo
orai be - ha - zoin den go - zo
la la la la ra la la la la la ra la la la
la la la la ra la la la la la ra la la la
la la la la ra la la la la la ra la la la
la la la la ra la la la la la ra

ANDERI BILBIL (*dantzan heldu zaizko ondorat*)

- 2 - Mari Bekaitz, nun ote haiz?
akabo dun min eta gaitz. (ber. eta «la, la...»)

ANDERE BAIBAI

- 3 - Gaxux Biper, etor laster:
dena bihotz dener ager. (ber. eta «la, la...»)

ZENTZULUZ: Etor ditela orai gure haurrak.

KAXKOPEL: Etxeko bakeaz eta gozoaz balia ditela.

MATTIN BIHOTZANDI: Balia eta... (*kantuz*)



Musical score for Mattin Bihotzandi, featuring four staves of music with lyrics in Basque. The lyrics are: Hau ba-ke - a, hau gozo - a!; nihun pa - re gabe-ko - a!; orai So bat orai So bi; i-zan bi - ak de-nen zu - bi.

DENEK



Musical score for DENEK, featuring two staves of music with lyrics in Basque. The lyrics are: Hau ba-ke - a, hau gozo - a!; nihun pa - re gabe-ko - a!

- 2 - Orai Xelet eta Mantxut,
denak zoin net, denak zoin xut.
Hau bakea, hau gozoa!
- 3 - Orai Milik eta Kalak,
arrunt hilak dire gerlak.
Hau bakea, hau gozoa!
- 4 - Orai Muñu ttikiena,
goza-goza zoriona.
Hau bakea, hau gozoa!

IRATZEDER

1.

El-ga - rri:BA el-tze-an: KE
 hau e - txe-ko BA-KE - A!
 hau e - txe-ko BA-KE - A!
 Gu-zi - e - ri a-gur, i-rrri,
 lai de rai lai deraide rai
 Gu zi - e - ri a-gur i-rrri,
 e-txe -ko - en pizga - rri,
 e-txe -ko -en pizga -rri

2.

Elgarri: BA;
 eltzean: KE;
 hau etxeko BA-KE-a!
 hau etxeko BA-KE-a!

Guzieri bihotz berri:
 laiderai laideraiderai.
 Guzieri bihotz berri,
 bozkario iturri.
 bozkario iturri.

Elgarri: BA;
 eltzean: KE;
 hau etxeko BA-KE-a!
 hau etxeko BA-KE-a!